



---

**Onespena ematea “Arabako burruntzien Atlasa” liburua saltzeko aplikagarri den prezio publikoa onesteari buruzko Foru Gobernu Kontseiluaren foru dekretu proiektuari.**

Apirilaren 19ko 135/2018 Foru Aginduaren bidez, hasiera eman zitzaion “Arabako burruntzien Atlasa” liburua saltzeko aplikagarri den prezio publikoa onesteari buruzko Foru Gobernu Kontseiluaren foru dekretu proiektuari.

Foru dekretuaren proiektu horren xedea da prezio publiko bat ezartzea “Arabako burruntzien Atlasa” liburua saltzeko, eta alderdi hauek arautzea:

1. artikulua.- Lotuta dagoen jarduera eta zenbatekoa.
2. artikulua.- Ordaintzera behartuta daudenak.
3. artikulua.- Ordaintzeko beharra eta modua.
4. artikulua.- Kudeaketa eta administrazioa.
- 5º.-. artikulua Indarrean jartzea.

Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren 12. artikulua, izaera orokorreko xedapenak egiteko prozedura onesten duenak, ondokoa arautzen du: “testu arauemaileen proposamenak idatzi ondoren, prozedura hasteko ebazpena eman duen organoaren aurretiazko onarpena jaso beharko dute proposamenok, bidezkoak diren negoziazio, entzunaldi eta kontsulta izapideei ekin baino lehen.”

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

### **XEDATZEN DUT**

**Lehena.** Onespena ematea “Arabako burruntzien Atlasa” liburua saltzeko aplikagarri den prezio publikoa onesteari buruzko Foru Gobernu Kontseiluaren foru dekretu proiektu honi, zeina eranstean baita ebazpen honen eranskin gisa.

**Bigarrena.** Foru Gobernuaren Kontseiluaren “Arabako burruntzien Atlasa” liburua saltzeko aplikagarri den prezio publikoa onesteari buruzko Foru Gobernu Kontseiluaren foru dekretu proiektuaren zirriborroa prestatzeko prozedura izapidetzeko kudeaketa lana Ondare Zerbitzutik bideratzea, Ingurumen eta Hirigintzako Zuzendaritzaren eskariz.



## ERANSKINA

**Onespena ematea "Arabako burrunzien Atlasa" liburuaren prezio publikoari, zeina Arabako parke naturaletako harrera guneetan jendearentzat salgai egongo baita.**

**1. artikulua.- Lotuta dagoen jarduera eta zenbatekoa.**

Prezio publikoa ordaindu beharko da Ingurumen eta Hirigintza Sailak daukan "Arabako burrunzien Atlasa" erosteagatik.

Publikoarentzako salmenta prezioa 12€/unitate

**2. artikulua.- Ordaintzera behartuta daudenak.**

Ordaintzera behartuta daude jendearen eskura jarriko den salgaia erosten duen nola pertsona fisiko eta juridikoak hala zuzenbide publikoko erakundeak.

**3. artikulua.- Ordaintzeko beharra eta modua.**

Eskuratutako salgaia ordaintzeko betebeharra sortzen da.

Parke naturaletako harrera guneetan edo Arabako Foru Aldundian ordainduko da, eskudirutan, ordaintzeko egingo den ordain gutunaren bidez edo banku transferentziaren bidez.

**4. artikulua.- Kudeaketa eta administrazioa.**

Arabako Foru Aldundiak kudeatu eta administratuko ditu foru dekretu honetan ezarritako prezio publikoak, eta haren zerbitzuek bideratuko dituzte.

**5. artikulua.- Dekretu honek argitaratzen den egunaren biharamunean izango du indarra.**